



BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin harreman estu eta sendo bat sortzea nahi dugu. Beraien beharrak interpretatu eta soluzioak emanaz, guregan konfiantza jartzeko fidagarritasuna eta sinesgarritasuna eskaintzen diegu, epe luzerako harremana eraikitzeko.

Gure bezeroekin harreman sendoagoa edukitzeko Bergaran pabeioi bat edukiko dugu, bertan gure produktua egingo dugu baina bezeroak bertara joateko aukera ere izango dute zalantzarik izanez gero.



Bergara oso urruti gelditzen bazaie bezeroei, haietan ere pentsatu dugu harremana mantentzeko beste modu bat:

Automatizatutako zerbitzuak: zerbitzu mota honekin gure bezeroek aukera izango dute udaletxetik edo nahi duten lekutik edukiontzien eskaera egiteko. Bi zerbitzu mota eskaintzen ditugu, alde batetik webgune bat sortuko dugu eta bestetik, telefono edo e-mail bidez hitz egin ahal izango dute eta baita eskaera egin:

- **WEBGUNEA:** hemendik bezeroek gure produktua online ezagutzeko aukera izango dute, bertan gure helburua azalduko dugu eta mundu hobia egin dezakegula zehaztuko dugu, publizitatea eginez.

Udaletxeetara joango gara gure produktua eskaintzera. Bertan, gure produktuak zertan datzan azalduko dugu haiek edukiontziak eros ditzaten.

Honetaz aparte eskoletan eta zaharren egoitzetan hitzaldiak emango ditugu udaletxeari laguntzeko eta gaia sakonago uler dezaten gazteek, gazteen gurasoek eta helduek. Birziklatzea zein garrantzitsua den jakin dezaten. Azkenean herritarrak izango dira kontsumitu behar dutenak eta haiek ados baldin badaude gure enpresak aurrera jarraitu ahal izango du.



